



## **2026KO INAUTERIETAKO DESFILEAREN LEHIAKETAREN OINARRIAK**

Trapagarango Udalak, Kultura Sailaren bitartez eta 2026ko Inauterietako Desfilearen programazioaren osagarri, Mozorro Lehiaketarako deialdia egiten du, honako oinarri hauen arabera:

### **LEHIAKETAREN OINARRIAK**

#### **LEHENENGOA.-** Xedea

Mozorro lehiaketa izango da. Taldekako eta bakarkako kategoriak ditu.

#### **BIGARRENA.-** Parte hartzaileak

Izen-ematea behar bezala eta oinarri hauetan ezarritako prozedura betez egin duten taldeak edo banakoak hartu ahal izango dute lehiaketa honetan.

Lehiaketan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da inauterietako desfilean parte hartzea eta ezarritako epeetan izena ematea.

Ez dira onartuko mozorro edo lelo iraingarriak edo herritarren arteko bizikidetzaren normalari eragiten dietenak edo pertsonen duintasunaren aurka doazenak. Era hauetara har daiteke parte:

- Banakakoak: 4 laguneraino
- Kuadrillak: 5 lagunetik gora
- 60 urtetik gorako kuadrillak: 5 lagunetik gora.
- 16 urte arte gazte kuadrillak: 5 pertsonatik aurrera.

Adin txikikoek beti ere adin nagusiko arduradun batekin joan beharko dira, betiere mozorroturik EZ dagoela.

Baldintza hori betetzen ez bada, taldea koadrilen kategoriako parte-hartzailezat hartuko da.

#### **HIRUGARRENA.-** Izen-ematea

Izena emateko epea:



- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oinarri hauen argitaratze egunetik 2026ko otsailaren 12ko 13:00etara.

Izen-emateak honela egingo dira:

- Presentzialki Trapagarango Udaleko Kultura Sailean
- Hurrengo helbide elektronikoaren bidez: kulturatrapaga@gmail.com

Izena emateko fitxa bat bete beharko da, oinarri hauekin batera argitaratuko dena udalaren webgunean [www.trapagan.net](http://www.trapagan.net). Fitxa horren atal guztiak bete beharko dira eta taldearen ardura duenaren sinadura eduki beharko du.

Inskripzioan jasota utziko da taldearen izena, ordezkari baten izena eta NANA, telefono zenbaki bat eta helbide elektroniko bat. Adinez txikiak osatutako talde bat denean, heldu batek egingo du inskripzioa eta saria jasoko duena.

Ordezkariek bakarrik jaso ahal izango du lortutako saria. Horretarako, izen-emate orriarekin batera Erantzukizunpeko Adierazpena osatu beharko da, sarien onuradun izateko.

Onuradun izaera lortzeko, ordezkariak Ogasunean, Gizarte Segurantzari eta Trapagarango Udalean dituen zerga-betebeharren ordainketa eguneratua izan beharko du, dagokion alkatetza-dekretua egiten den egunerako.

Izen-emateak suposatzen du oinarri hauek ezagutu eta onartzen direla.

### **LAUGARRENA.-** Parte hartzeagatik sariak eta accesitak

Hurrengo kategorია hauek ezarri dira:

#### A. BANAKAKO KATEGORIA

- 1. Saria: 400€ + Garaikurra
- 2. saria: 300€ + Garaikurra
- 3. saria: 100€ + Garaikurra\*

\*Banakako kategoriako 3. sariaren balea BATURIKek, Trapagarango merkatari, ostalari eta zerbitzuetako elkarteak, eta Trapagarango Udalek emango dute.

#### B. KUADRILLA KATEGORIA

- 1. saria: 800€ + Garaikurra
- 2. saria: 600€ + Garaikurra
- 3. saria: 500€ + Garaikurra



C. KUADRILLENZAKO SARI BEREZIA (60 URTE BAINO GEHIAGO)

- 1. saria: 450€ + Garaikurra

D. KUADRILLENZAKO SARI BEREZIA (16 URTE BAINO GUTXIAGO)

- 1. saria: 300€ + Garaikurra
- 2. saria: 150€ + Garaikurra

ACCESITAK (izen emate ordena jarraituz)

- Banakako kategoria: 30€-ko 10 accesit partaide bakoitzarentzat
- Kuadrilla kategoria (3 modalitateetan): 60€-ko 10 accesit kuadrilla bakoitzarentzat

**BOSGARRENA.-** Desfilea

Ezinbesteko baldintza izango da desfilearen ibilbidean parte hartzea lehiaketan parte hartu ahal izateko.

Trapagarango Inauterietako Desfile ofiziala martxoaren 1ean, larunbatean egingo da. 18:30etan hasiko da eta Trapagarango kaleetan barna ibili ondoren Udal Kirolegian amaituta da.

Lehiaketaren antolatzaileak desfilearen amaiera lekua aldatzeko eskubidea izango du. Kasu horretan, behar besteko aurrerapenaz abisatuko zaie parte-hartzaileei.

Bi bloketan banatuko da parte hartzen duten pertsonen edo taldeen irteera hurrenkera. Alde batetik banakako mailan lehiatzen direnak aterako dira eta, bestetik, taldeak.

Kultura Sailak erabakiko du bi bloke hauen barruan jarraituko den hurrenkera.

Desfilean zehar ez dira onartuko aurrekusi gabeko geldialdirik, martxa geldotu ez dezaten.

Musikarekin desfilatu nahi duten taldeak edo banakakoak MP3 formatuan ekarri beharko dute izena ematen duten unean, USB bidez edo hurrengo helbide elektroniko honetara fitxategi trinkotua bidaliz: [kulturatrapaga@gmail.com](mailto:kulturatrapaga@gmail.com)



Halaber, motorrezko tramankulu edo ibilgailuz parte hartzen duten talde edo kuadrillek gidariaren izena eman beharko dute inskripzioa egitean, eta arrastratzeko erabiltzen den ibilgailuaren matrikula ere bai.

Tramankuluek segurtasun baldintzak bete beharko dituzte, haren elementuak ongi aingiraturata egon beharko delarik ibilbide guztian bermatzeko egonkortasuna eta segurtasuna. Taldea arduratuko da segurtasun perimetroa egiteaz haren inguruan, eta parte hartzen duen talde edo kuadrillaren erantzukizunpean egongo da.

Artefaktu motordunak erabiltzen dituzten parte-hartzaile guztiek artefaktuari dagokion lege-araudia bete beharko dute. Zehazki, tresna horiek derrigorrezko aseguru izan beharko dute indarrean, bai eta zirkulazio legeak eskatzen duen beste edozein baimen edo dokumentazio ere. Antolaketak eskubidea izango du baldintza horiek betetzen ez dituzten parte-hartzaileak lehiaketatik kanpo uzteko. Era berean, motor-tresna erabiltzearen ondorioz gertaeran zehar gerta daitekeen edozein kalte pertsonal edo material, istripu edo gorabehera arduradunaren erantzukizun eskusiboa izango da, eta antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango.

Udal kiroldegiko ibilbidea amaitu ondoren, parte hartu duten tramankuluak eta ibilgailuak bide publikotik kendu beharko dira, une oro egongo delarik arduradun bat, organizazioaren aginduak betetzeko.

Desfilearen ibilbidea:

18:30ean: Desfile/ lehiaketaren irteera Lauaxeta plazatik

- Funikular kalea, N-634 errepidearen bidegurutzeraino

- N-634 errepidetik jarraituko du, Barakaldoko errepidearen bidegurutzeraino, eta Juan Sebastian Elkano desfilea amaituko den lekuraino.

**SEIGARRENA.-** Epaimahaia eta balorazio-irizpideak

Trapagarango Udaleko Kultura Sailak izendaturiko kidez osatuko da epaimahaia eta honako balorazio-irizpen hauek kontuan hartuz, 0tik 10 punturaino emanez atal bakoitzean:

- a) Originaltasuna, ikusgarritasuna eta sormena: berritasuna, materialen birziklatzea, koloreztatzea, elementu handiak, makillajea.
- b) Jantzigintza eta akabera: eskuz egindako mozorroak, apaingarri eta osagarriekin.



- c) Koreografia (koordinazioa eta zailtasuna).
- d) Erritmoa, sinkronizazioa, akustika eta sonoritatea.

Epaimahaiaren epaitza balorazio bakoitzaren batura izango da eta desfilea amaitu eta gero emango da jakitera, 2026ko otsailaren 14an, larunbatean, sari-banaketako amaierako jaialdian.

Epaimahaiak kuadrillak edo banakakoak ebaluatuko ditu desfilearen une desberdinean, eta amaieran egiten den antzezpenean. Desfilea aurretik aipatutako lekuan amaitzen ez bada, jaitsieran egindako dantzak eta koreografiak baloratuko dira.

Ezinbesteko baldintza da modalitate bakoitzeko partaideentzat amaierako galan desfilatzea, epaimahaiak azken sailkapena eman dezan. Lehiaketa prozesuan zehar amaierako sailkapenerako agertokira joateko deiarri muzin egiten dion talde edo pertsona oro deskalifikatuta geratuko da, sailkatutako hurrengo partaideari emango zaiolarik txanda.

Parte-hartzaile edo kuadrilla bakoitzak gehienez 2 MINUTU izango ditu bere dantza edo amaierako antzezpena egiteko.

Epaimahaiaren epaitza apelaezina izango da; halaber, sailkapenetako baten saria eman gabe gera daiteke kalitate nahikorik ez balego eta, berdinketa kasurako, partaide bat gehiago sailkatzeko eskubidea izango du.

Kultura Sailak edozein unetan deskalifikatu ditzake parte hartzaileak, baldin eta bere lelo, konsigna eta mozorro iraingarriekin herritarren arteko bizikidetzaren normalaren edo pertsonen duintasunaren aurka badoaz.

**ZAZPIGARRENA.-** Irabazleei jakinarazpena.

Saridunak egunean bertan izango dute horren berri eta Trapagarango udaleko webgunean argitaratuko dira.

**ZORTZIGARRENA.-** Oinarrien onartzea.

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du lehiaketaren oinarriak erabat onartzen direla; gerta daitezkeen eta antolatzaileek lehiaketaren oinarrietan jasota ez dituzten kasuak antolatzaile horien interpretazio askearen mende geratuko dira.



Trapagarango Udalak ez du bere gain hartuko lehiaketa honetan gerta daitezkeen edozein gorabehera edo istripu.

**BEDERATZIGARRENA.-** Irudi eskubideak

Oinarriak onartzean, taldeek eta kuadrillek baimena ematen dute eurek agertzen diren argazkiak, bideoak, audioak eta irudiak erabiltzeko, eta talde eta kuadrillek Trapagarango Udalari emandako argazkiak, bideoak, audioak eta irudiak erabiltzeko, tokiko Inauteriak iragartzeko eta zabaltzeko, irudiok erreproduzitzeko, banatzeko, komunikazio publikoa egiteko eta erakundeak dituen komunikazio-tresnetan eraldatzeko, besteak beste, inprimatutako hedabideetan (aldizkaria, buletinak, liburuxkak, gidak, etab.), bai digitaletan (web-orria edo erakundearen sare sozialetako profilak, buletin edizio digitalak, etab.). Baliabide horiek etorkizunean erabil daitezkeen beste batzuen adibide dira, eta ez mugatzaile.

Baimen horrek ez du berekin ekarriko ez konpentsazio ekonomikorik, ez inolako kalte-ordainik aipatutako argazki, bideo, audio eta irudiak erabiltzeagatik, horien barne daudelarik sortutako igurikimenak.

Argazki, bideo, audio edo irudi horiek erabiltzeak gizabanakoaren duintasuna bermatu eta babestuko du, haren buruaren eta haren familiaren esplotazioa edo deserosotasuna eragozteko, eta ez du ekarriko haren eskubideetan modu ez-legitimoan sartzea. Nolanahi ere, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa beteko da.

**HAMARGARRENA.-** Datu pertsonalen babesa eta eskubide digitalen bermea

Bildutako datu pertsonalak udal-titulartasuneko fitxategi batean sartuko eta tratatuko dira, honako ezaugarri hauekin:

Tratamenduaren arduraduna:

Trapagarango Udala (IFK: P4809300-I; helbidea: Lauxaeta Enparantza 1, 48510 Trapagaran, Bizkaia).

Tratamenduaren helburua:

Trapagarango Udaleko Kultura Sailak antolatutako 2026ko Inauterietako Desfile Lehiaketa izeneko jarduera kudeatzea.



Tratamenduaren oinarri juridikoa:

Interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatuz misio bat egiteko baimena edo beharrezana da.

Datuen xedea:

Datu pertsonalak ez zaizkio beste erakunde bati jakinaraziko. Epaimahaiarekin partekatuko dira ekitaldia kudeatzen den bitartean.

Eskubideak:

Intersdunak eskubidea du datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo ukatzeko ere. Horretarako, jakinarazpen idatzi bat bidali beharko du Trapagarango Udaleko helbidera, bere nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsiz edo toki-erakundearen egoitza elektronikoa horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoa hasiz.

#### **HAMAIKAGARRENA.-** Erregimen juridikoa

Deialdi hau honako atal hauetan ezarritakoaren arabera arautzen da, 2020ko urriaren 8ko osoko bilkuran onetsitako Udal Diru-Laguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorraren 3. artikuluko a eta c puntuetan adierazten den bezala.

Ebazpen honetan aurreikusten ez diren alderdi guztietarako, aplikagarriak izango dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Lege Orokorra, 39/2015 Legea, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia.

#### **HAMABIGARRENA.-** Publizitatea

Aipatutako oinarriak udaleko webgunean egongo da eskuragarri, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Diru Laguntzen Datu Base Nazionalaren bidez.





## TRATAMENDUAREN ARDURADUNA

Valle de Trápaga-Trapagaraneko Udala

Lauaxeta Enparantza, 1

PK: 48510

Telefonoa: 94 492 04 11

IFZ: P4809300I

DBO: [dbo-dpd.trapagaran@bizkaia.org](mailto:dbo-dpd.trapagaran@bizkaia.org)

Datuak biltzeko, [kulturatrapaga@gmail.com](mailto:kulturatrapaga@gmail.com) erabiliko da.

### **Tratamenduaren helburuak eta oinarri juridikoak**

2026ko Inauterietarako desfileko parte-hartzaileen kudeaketa eta kontrola.

Tratamenduaren oinarri juridikoak adostasuna edo interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko beharra dira.

### **Hartzaileak**

Jardueran parte hartuko duten pertsonak.

### **Eskubideak**

Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea du Valle de Trápaga-Trapagaran Udalaren helbidera komunikazio idatzia bidaliz, bere nortasuna egiaztatzen dokumentuarekin, edo Korporazioaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen prozedura elektronikoa hasiz.

### **Jatorria**

Pertsona interesduna bera

### **Informazioa zabaltzeko bitartekoak**

Web-orrialdea: [www.trapagaran.net](http://www.trapagaran.net)

Telefonoa: 94 492 04 11





- edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguren bat ez izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.
5. Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, erregelamenduz zehazten den moduan.
  6. Erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea zerga-egoitza.
  7. Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izatea, erregelamendu bidez ezarritako moduan.
  8. Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntzak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez egotea, lege honen edo hala ezartzen duten beste batzuen arabera.
  9. 11.3 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako elkarreentako bat ez izatea, aurreko debekuren bat gertatzen bada kideetako edozeingan.
  10. Ez izatea enpresa bat, hura zuzentzen dituzten pertsonak edo beste inguruabar batzuk direla-eta, ulertu daitekeena beste enpresa batzuen jarraipen edo ondorio dela, eraldaketa, bat-egite edo ondorengotza bidez.
  11. Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan aurreikusitako debeku-kausetan sartuta ez egotea.
  12. Ez dela inskripzioarako administrazio-prozedura eten ez-zilegitasun penalaren arazoizko zantzuak daudelako, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, harik eta ebazpen judizial irmorik ematen ez den arte, horren bidez dagokion erregistroan inskribatu ahal izateko.
  13. Halaber, ez dago Trapagarango Udalarekin zorrik ez duela egiaztatzeko egin beharreko egiaztapenak burutzearen aurka.
  14. Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrari buruzko Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan ezarritako arau-hausteengatik edota sexuagatiko diskriminazioagatik zigor- edota administrazio-zehapenik ez izatea.

\_\_\_\_\_ (e)n, 2026ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_ (e)an

Sinadura